

BERTSOLARITZA

Hamabost bertsolari abiatuko dira Xilaba txapelketako bosgarren txapelaren bila

 **KULTURA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko hamabost bertsolarik parte hartuko dute aurtengo Xilaba txapelketan, gaur bertan abiatuko den bosgarren edizioan. Aurpegi berriak –Eskolarteko finaletik zuzenean datozen Kerman Diaz eta Nahia Sasco– eta ezagunagoak abiatuko dira trenean. Azken helmuga: azaroaren 12ko Baionako finala.

Gaur abiatuko da Donibane Lohizunen Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko V. Bertsolari Xapelketa. Xilaba. Hamabost bertsolarik parte hartuko dute eta bi kanporaketa eta lau finalaurreko jokatu ondoren, finala Baionan izango da datorren azaroaren 12an.

Esan bezala, bi kanporaketa jokatu dira; lehena gaur Donibane Lohizunen, eta, bigarrena, urriaren 1ean, Muskildin. Guztira hamabi bertsolarik parte hartuko dute kanporaketa horietan,

sei bertsolari saioko. Izan ere, Xilabako aurreko edizioan lehen hiru postuetan geratu zirenak –Sustrai Colina, Maddalen Arzallus eta Odei Barroso–, kanporaketa horietatik kanpo geratu dira eta zuzenean sartuko dira finalaurrekoetan.

Kanporaketa bakoitzean arituko den seikotea, berriz, zozketa bidez aukeratu da. Hartara, gaur Donibane Lohizuneko Ravel aretoan arituko dira, arratsaldeko bostetatik aurrera, honakoak: Amets Arzallus, Egoitz Zelaia, Kerman Diaz, Miren Arretxe, Nahia Sasco eta Ramuntxo Christy.

Nabarmentzekoa da Kerman Diazentzat (17 urteko urruñarra) eta Nahia Sascoentzat (18 urteko lekuindarra) lehen Xilaba izango dela. Eta biak aritu ziren joan den ekainean Ereñotzun jokatu zen Euskal Herriko Eskolarteko finalean.

Bigarren kanporaketa, beraz, Muskildiko Posonpesenea gelan jokatu da datorren asteburuan, urriaren 1ean, arratsaldeko bostetatik aurrera. Bertan arituko dira, honakoak: Aitor Servier, Battitt Crouspeyre, Eneitz Zabaleta, Maddi Sarasua, Ortz Idoate eta Xumai Murua.

Hortik aurrera, lau finalaurreko jokatu dira eta bertan hamabi bertsolarik parte hartuko dute: Sustrai Colina, Maddalen Arzallus eta Odei Barroso eta hasierako kanporaketetatik puntuazioz sailkatutako bedertz bertsolari. Baigorri, Izturitzen, Aiziritzen eta Larresoron jokatu dira finalaren aurreko saio horiek; urriaren 8an, 15ean, 22an eta 29an, hurrenez hurren.

AURPEGI BERRIAK ETA EZAGUNAK
Hamabost bertsolari animatuko dira aurtengo Xilabaren bosgarren edizioan parte hartzera. Ba-

tzuentzat plaza ezagun samarra da, gehienentzat egia esan. Esan bezala, Nahia Sasco eta Kerman Diaz dira estreinatuko diren bakarrak. Beste puntan daude Xilabako edizio guztietan parte hartu dutenak: Sustrai Colina, Xumai Murua, Odei Barroso eta Eneitz Zabaleta.

Amets Arzallusek hirutan parte hartu du oraingoz, 2008an, 2010ean eta 2012an. Eta hiruretan txapela buruan etxeratu zen. Geroztik, gainera, Euskal Herriko txapela ere jantzia du. Xilabako laugarren txapela, 2014an, Sustrai Colinak jantzi zuen.

Gaiak egiteko eta emateko ardua duen taldea, berriz, hamai-kidek osatzen dute: Amaier Lujanbio, Iban Falxa, Iñintza Ostolaza, Joana Itzaina, Karlos Aizpurua, Maiana Irigoien, Pantxika Solorzano, Bixente Hirigarai, Amaia Kastorene, Pettan Prebende eta Xan Alkhat.

Eta epaile taldean arituko direnak: Eneko Bidegain, Joakin Arregi, Beñat Soule, Erik Etxart, Lierni Elorza, Iban Thicoipe, Abel Zabala eta Zuhaitz Olazabal. Dena prest, beraz, has dadila Xutik taldekoen sintonia.

Xilabako azken edizioan, 2014. urtean, Sustrai Colinak jantzi zuen txapela. Aurreko hirurak, Amets Arzallusek eramane zituen.
Sylvain SENCRISTO





AITOR SERVIER

Azkainarra. 19 urte ditu.
Donibane Lohizuneko bertso
eskolan hasi zen 9 urterekin. Gaur
egun Larraldeako bertso eskolan
dabil. Eskolartekoan eta gazte
sariketetan hainbat sari lortua.
Bigarrenez dator Xilabara.



AMETS ARZALLUS

Hendaiarra. 33 urte ditu.
Hendaiako bertso eskolan ibilia,
ikasle eta irakasle. Hiru aldiz
finalista Bertsolari Txapelketa
Nagusian, eta 2013. urtean
txapelduna. Xilaban hirutan parte
hartu du eta hirutan irabazi.



BATTITT CROSPEYRE

1989an jaioa. Baigorriarra. Bertso
munduan sartua 21 urtetan,
Itsasuko bertso eskolaren bidez.
Lehen plaza ondoko urtean
Itsasuko inauterietan. Hirugarren
aldiz hartuko du parte Xilaba
txapelketan.



EGOITZ ZELAIA

Hendaiarra, 1982an jaioa. Euskal
Herriko Bertsozale Elkarteko
Ikerkuntza arduraduna izan da eta
egun Bertsularien Lagunak
elkarteko Ikerkuntza arduraduna
da. Zenbait sariketetan parte
hartu du. Laugarren Xilaba du.



MADDALEN ARZALLUS

26 urte ditu. Hendaiarra.
Txapelketa ezberdinetan parte
hartu du. 2008an Xilaba
txapelketan finalista izan zen eta,
2014koan, bigarren. 2009an
Euskal Herriko Txapelketan parte
hartu zuen. Hirugarren Xilaba du.



KERMAN DIAZ

Urruñarra da eta 17 urte ditu.
Donibane Lohizuneko ikastolan
hasi zen bertsotan. Hendaiako
bertso eskolan eta Baionakoan
ibilia, orain ALBE Algortako bertso
eskolan dabil. Eskolarteko
Txapelketetan ibilia. Lehen Xilaba.



ENERITZ ZABALETA

Baionarra da eta 32 urte ditu.
Eskolarteko hainbat txapelketa
eta sariketatan parte hartu du.
Lehen aldiz parte hartu zuen
azken Txapelketa Nagusian.
Bosgarren Xilaba txapelketa du
aurtengoa.



MADDI SARASUA

21 urte ditu eta itsasuarra da.
Uztaritzeko ikastolan hasi zen
bertsotan. Egun Gasteizen ikasten
du. 2012ko Xilaban laugarren
egin zuen eta ondoren Txapelketa
Nagusian lehen aldiz parte hartu
zuen. Bere hirugarren Xilaba du.



ODEI BARROSO

28 urte ditu, Urruñakoa da eta
Azkainen bizi da. Bertsolaritza
eskolak ematen ditu. 13 urterekin
hasi zen bertsotan, eta Hendaiako
bertso eskolan ibilia da. Bi aldiz
izan da Txapelketa Nagusian, eta
bosgarrenez izango da Xilaban.



NAHIA SASCO

Lekuinekoa da eta 18 urte ditu.
9 urterekin hasi zen bere herriko
bertso eskolan, ondotik Kanbo eta
Baionako bertso eskoletan ibili
aitzin. Eskolarteko Txapelketan
ibilia, azkenekoan finalista izan
zen. Lehen Xilaba du aurtengoa.



MIREN ARTETXE

Lasarten jaioa 1985. urtean,
haurra zela joan zen Hendaiara
bizitzera. Bertso eskoletan
irakasle aritu izan da lanean. Bi
aldiz parte hartu du Txapelketa
Nagusian eta laugarren Xilaba du.



ORTZI IDOATE

39 urte ditu eta baionarra da.
Aitor Sarasuaren irakaspenekin
bere burua bertsolari sentitu eta
Nafarroa eta Iparraldeko
Txapelketetan parte hartzera
animatu zen. Hirugarren Xilaba.



XUMAI MURUA

Baionarra da eta 31 urte dauzka.
Bertsozaletasuna etxean jasoa,
bertso eskoletan ibilia, geroztik
plazaz plaza ari da. Aurtan
bosgarren aldiz parte hartuko
du Xilaban.



SUSTRAI COLINA

34 urte ditu eta urruñarra da.
Hendaiako bertso eskolan ibilia,
ikasle eta irakasle. Lau aldiz
finalista Bertsolari Txapelketa
Nagusian. 2014. urteko Xilabako
txapelduna da. Bosgarren Xilaba.



RAMUNT XO CHRISTY

36 urte ditu. Aiherran sortua,
egun Amikuzen bizi da. Mauleko
bertso eskolan ibilia da eta
Xiberoko Bertsu Elkartearen
ardura eraman du. Laugarren
Xilaba izango du aurtengoa.